

Eledun

1

Bat-batean josten ditut hitzak silabaz silaba idatziz, bertso berritan jarri ohi dut bihozkada egunkaritan, blogetan asteroko zertzelada hitzak, eleak jolasgai kezka ororen balada. Baina, ez nabil alferrik asanbladaz asanblada bertsulari bat, Aitzinan bihar eledun gisara? Gazte erakundearen hitzen kargu, beharbada... hor hasi zen barne-galde bihurrian sigi-saga.

2

Proposamena izan dut ezusteko, itsumustu erran zidaten: "Pertsona egokia haiz hain justu komunikatzaile ona, mihirik ez zaik kamustu... harremanetan abila hori behar huke mustu". Nik haatik, bertsegintza baitut geroko apustu bi bizien paradigma gaur jantzi, bihar biluztu: – Bertsutan behar ote dut "nia" xume-xume hustu? – Ta eledun gisa aldiz, "gua" hitz potoloz puztu?

3

Zaila zait ordenatzea erraietako enbata, areago erakunde baten haritik tiraka nola atera ikasi nahi dut sartu aitzin hanka. Iritziak agertzeko horra dilema galanta: – Prentsaurreko jendetsua, elkarrizketako txapa estrategiez eginik irmotasunez kalaka – Edo sotilki gaindituz gai labainkorren ataka, ideia printzak azalduz bertsu-saiotan tantaka?



KAZETA:INFO

Aitor Servier



4

Ahotsa politikaren lurra iraultzeko tresna nola zuritu daiteke egin gabeko hobena? Hain bat-batekoa ez den langintzan eleen dema galdera existentzialen nabardura nabarmena: – Lokatzetako bardoak, kantuz husten du barrera ertzeko iritziakin, subjektiboa den lema. – Eledun gisa zalantzan jarri nahi badut sistema beti izan behar al dut politikoki zuzena?

5

Amuriza, ordezkatzuz HBren pentsakera, behin, Juan Carlos aurrera kantuz ez al zen atera? Onintza Enbeita sartu zen Madrilen lehoi artera Gorteeetan hartu die txistuei txalo tankera. Bertsulari, politiko, biak izaki batera eskizofrenikoa ez ote dute izakera? Eleduna izatea enetzat aski arte da baina, iritsiko al naiz diputatu izatera?

Doinua: Laurogeita hamar urte.

6

Ezinikusien kinkak, jendearen maliziak, ostatuetan sortu ohi ditu kalaka bitxiak: bertzeren ideiei buruz erdeinuzko iritziak ene kasuan, batzoki ertzeraino iritsiak herri txit jator honetan, hegan doaz notiziak arrisku poxi bat dakar eledunaren bihiak ez bitez izan pasata ideien talkak, krisiak gaurko ate irekiak biharko ate itxiak.

7

Adierazi berri dut non dakusadan zemaia, aurreko azken puntua, ez da zinezko epaia, bai ordea, baietzapen erretoriko deslaia saiora nor ekarriko? Delarik hizketagaia bertsutan, Sarri, Barcina, zakurra, amatxi guaya eledun gisa zorrotza, ekintzailea, lasaia jendeak hautemanen du ene nihaur izan nahia edota ikusiko du bi kasutan pertsonaia?

8

Sorta serioa baina, 5. bertsu burla diputatu izatera ez naiz helduko sekula eledun izatera bai, erantzunkizun mardula jadanik entzun dezaket, anitzen ahuntz eztula bertsularion kritikan hain estakuru ahula, euskal sasi-intelektual bekaiztien fabula, hitza izkilutzat nahi dut eta eleak xuxurla erran ez dezaten denok berdin pentsatzen dugula. ■

2015eko San Antontxu bertso paper lehiaketan, gazteen mailan, sorta saritua.